

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 469/2019 Erabakia, uztailaren 23koa. Onestea María Nieves Arrieta Ugarte andrea izendatzea behin-behineko langileek betetzekoa den Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren idazkari lanpostua betetzeko

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko konfiantzako lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. María Nieves Arrieta Ugarte izendatzea, konfiantzako behin-behineko langileek betetzekoa den Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren idazkari lanposturako (kodea: 1300.004). Erabaki honek ondorioak izango ditu 2019ko uztailaren 24tik aurrera.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO